## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren 4677/2021 Ebazpena, abenduaren 2koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiko sailek hainbat erakunde eta elkarterekin izenpetutako lankidetza hitzarmenen laburpenak argitaratzeko**

Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetza hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluak eta ondorengoek; Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Aintzat izanda lehen aipatutako lege manuak eta aplikatu beharrekoak, eta baliatuz Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 102. artikuluaren eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuaren arabera dagozkidan eskumenak, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetza hitzarmen hauek:

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Droga mendetasunen prebentzioa eta toxikomanoen eta toxikomano ohien errehabilitazioa eta gizarteratzea.

Finantzaketa: 67.872,12 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: 6 eta 16 urte bitarteko adingabeentzako eguneko zentroa eta eskuhartze familiarreko programa espezializatua garatzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Finantzaketa: 184.683,84 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Ijitoak Arabako Lurralde Historikoan gizarteratzeko aurreprestakuntzarako zerbitzu bat garatzea.

Finantzaketa: 149.392,92 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Juan Carlos del Campo Bidaurrázaga, Urgatzi Elkartearen ahalduna.

Hitzarmenaren xedea: bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako egoitza bidezko harrera programa kudeatzea.

Finantzaketa: 3.871.309,55 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Concepción Gonzalez Izquierdo, Espainia iparraldeko probintzia kanonikoaren Karitatearen Alaben probintzia bisitaria.

Hitzarmenaren xedea: Familia egoera egokia ez duten haurrak zaintzeko harrera eta larrialdietarako Hazaldi zentroa kudeatzea.

Finantzaketa: 1.405.692,83 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 29a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Mª Carmen Arroyo Santamaría, gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen Arabako elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Zainduz atsedenerako programa kudeatzea eta garatzea, gaixotasun mentala duten pertsonentzat.

Finantzaketa: 51.000,00 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko irailaren 7a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Igor Camino Ortiz de Barrón, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dekanoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria.

Hitzarmenaren xedea: Haurtzaroko esperientzia kaltegarriak (ACE) eta eskola uztea ikertzeko proiektua.

Indarraldia: 4 urte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko irailaren 29a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritza Saileko foru diputatua.

Bestetik: María Aránzazu Tapia Otaegui, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua.

Hitzarmenaren xedea: EAEko Erakunde Ordaintzailearen eta Arabako Foru Aldundiaren artean egon behar duen lankidetza ezartzea, azken horrek NBEF eta LGENF Europako funtsen kontura finantzatutako zuzeneko laguntzei eta landa garapenerako neurriei dagokienez eskaerak jasotzeko eta administrazio kontrolak eta tokian bertan egitekoak gauzatzeko jardueren eskuordetzean.

Indarraldia: lau urte, izenpetzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Luzapena: Aurreko epea amaitu aurretik, alderdi sinatzaileek edozein unetan erabaki lezakete hitzarmena luzatzea, gehienez, beste lau urtez, edo hura azkentzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 11**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Patricia García Sánchez, Gasteiz On Gasteizko Hiri Merkataritza Sustatzeko Elkartearen kudeatzailea.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Gasteiz On Gasteizko Hiri Merkataritza Sustatzeko Elkartearen arteko harremanak bideratzea da, era osagarrian bi haietako bakoitzari bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzeko.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Gasteiz On Gasteizko Hiri Merkataritza Sustatzeko Elkarteari 72.450 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 11**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gaizka Olarte Landa, ARTISAU artisautza sustatzeko elkartearen lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta ARTISAU artisautza sustatzeko elkartearen arteko harremanak formalizatzea, entitate bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta beren helburuak lortzera bideratuta dauden ekintzak optimizatzeko.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, ARTISAU artisautza sustatzeko elkarteari 80.000 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 14a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ana M. del Val Sancho, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko diputatua.

Bestetik: Jimena Ruiz De Landa, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Arabako Ordezkaritzako lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Ondare historikoaren kontserbazioari buruzko prestakuntza jardunaldiak antolatzea, Arabako zaharberritze arkitektonikoaren sektorea espezializatzeko eta sustatzeko.

Indarraldia: 2021eko urriaren 14tik abenduaren 31ra arte.

Luzapena: Alderdiek berariaz hala adostuz gero, gehienez ere 4 urtez.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**IZENPETZE EGUNA: 2021eko urriaren 18a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Blanca de la Peña Bernal, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: María Isabel Valldecabres Ortiz andrea, Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionala - Diruaren Errege Etxeko zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea. Arabako Foru Aldundiaren eta Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionala - Diruaren Errege Etxearen arteko kudeaketa agintzeko hitzarmenari eranskina, takografo digitaleko txartelak, gidarien gaitasun txartelak eta errepideko garraioen baimen eta ziurtagirietarako euskarri fisiko gisa erabiltzeko paper tinbreduna fabrikatu eta entregatzeko.

Indarraldia: 2022ko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urte gehiagoz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 2a

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*
*ELENA FERREIRA SEBASTIÁN*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.01.05 07:00:58 Z